



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2010eko EKAINA

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2010

**HISTORIA DE LA
FILOSOFÍA**

Azterketa honek bi aukera ditu. Horietako bati erantzun behar duzu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

A AUKERA

“Honen ostean, ni zer naizen aztertu nuen arretaz, eta ikusi nuen irudika nezakeela ez neukala inolako gorputzik eta ez zegoela ni nengoen inolako mundurik, ez eta lekurik, baina ez nezakeela honegatik irudikatu ni ez nintzela; eta ikusi nuen, halaber, ni ez beste gauzen egiaz zalantza egin behar nuela pentsatze hutsetik ondorioztatzen zela, ebidenteki eta ziurtasunez ni zerbait nintzela, eta, ostera, bakarrik pentsatzeari utzita ez nuela izango batere arrazoirik ni banintzela uste izateko”.

Descartes: *Metodoaren diskurtsoa*

GALDERAK

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

1.1 Laburtu pasartea, haren ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz. (1 puntu).

1.2 Azaldu azpimarraturiko terminoak. (1 puntu) (50-75 hitz termino bakoitzeko).

1.3. Descartes-en pentsamenduan, zalantza metodikoa garatu ondoren, arrazoimenak “ni”-a ezartzen du, eta handik hasten da ezagutzaren bidea. Gara ezazu disertazio labur bat, gutxienez tesiaren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat eman. Ondoren, eman ezazu zure tesiaren inguruko hausnarketa. (3 puntu) (200-300 hitz).

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

2.1 Azaldu itzazu, laburki, Descartes-en zalantza metodikoaren pausoak. (1,5 puntu). (Gehienez: 150 hitz).

2.2 Azaldu ezazu, laburki, Jainkoaren demostrazioa Descartes-en *Metodoaren Diskurtsoan*. (1,5 puntu). (Gehienez: 150 hitz).

2.3 Errenazimentuaren ezaugarri orokorrak. (2 puntu). (Gehienez: 250 hitz).



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2010eko EKAINA

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2010

**HISTORIA DE LA
FILOSOFÍA**

B AUKERA

“*Ilustrazioa, gizakiaren irteera da bere erruzko adingabetasunetik. Adingabetasuna, besteren gidaritzarik gabe nor bere adimenaz baliatzeko ezintasuna. Norberaren erruzkoa, adingabetasunaren zergatia ez datzanean adimenik ezean, nor bere buruaz besteren gidaritzarik gabe erabakitze gaitasun eta kuraiarik ezean baizik. *Sapere aude!* Auzart zaitez, zure adimenaz baliatzen! Hona hemen ilustrazioaren esana”.*

Kant: “*Zer da Ilustrazioa?*” Galderari erantzuna

GALDERAK

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

1.1 Laburtu pasartea, haren ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz. (1 puntu).

1.2 Azaldu azpimarraturiko terminoak. (1 puntu) (50-75 hitz termino bakoitzarako).

1.3. Kant-en iritziz, gizakiak, bere kontzientzia morala eraikitzean, bere arrazoimenaz baliatu behar du. Ikasi dituzun filosofo guztiek ez dute tesi hori onartzen. Gara ezazu disertazio labur bat, gutxienez Kant-en tesiaren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat emanez. Ondoren, eman ezazu zure tesiaren inguruko hausnarketa. (3 puntu) (200-300 hitz).

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

2.1 Azaldu ezazu Kant-en testuan zer diren arrazoimenaren erabilera publikoa eta erabilera pribatua. (1,5 puntu). (Gehienez: 150 hitz).

2.2 Deskriba ezazu laburki arrazionalismoaren eta enpirismoaren eragina Kant-en filosofia kritikoan. (1,5 puntu). (Gehienez: 150 hitz).

2.3 Ilustrazioaren ezaugarri orokorrak. (2 puntu). (Gehienez: 250 hitz).